

Herritarrek

2014ko urria

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

13.alea



www.berastegi.eus

HIRIGINTZA

1. Udaletxeko kultura solairua: Bi diru-laguntza eskatu berri ditugu orain dela gutxi proiektua finantziatzeko, Erein eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak, hain zuzen. Proiektua luzatzen ari da, baina espero dugu laster plana esku artean izatea. Jende aurrean aurkeztuko da.

2. Ategiko eremua: Udalak plenez onartua du PAUa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunaren zain gaude. Uztailaren 14an egin zen bilera etxebizitzetan interesa azaldu duten herritarrekin, eta 15 lagun inguru bildu ziren. Ezeren berri izan bezain laster jakinaraziko da.

3. Plaza ixteko plana: Herriko arkitektoak diseinatu ditu dagoeneko herriko plaza ixteko zenbait aukera. Hurrengo pausoa herritarrekin bildu eta, parte-hartze prozesuaren bidez, nola itxi erabakitzea izango da. Esango zaizue non eta noiz egingo den. Bestalde, aparkaleku berriaren proiektua ere martxan da. Urte bukaerarako eginda egotea espero da.



4. Ordenantza fiskalak: 2015ari begira, ordenantza fiskalak zehazteko garaia iritsi zaio udalari. Udal zergak eta tasak zehazterakoan, erreferentziatzat Kontsumorako Prezioen Indizea (KPIa edo IPCa) hartzea pentsatzen ari da berriz ere udala, lehengo urtean erabilitako irizpide berari eutsiz.

2014an KPIak igoerarik izan ez duenez, IBlak edo kontribuzioak, Ibilgailuen Gaineko Zergak eta Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergak ez lukete igoerarik jasango. Obra baimenengatiko tasa ere %4an mantenduko litzateke, baita hiri-ondasunen salerosketei aplikatzen zaien gainbalioa ere.

Hondakinen bilketa-zerbitzuagatik ezartzen den zerga ere bere horretan mantentzeko asmoa du udalak. Bilketa-sistema berria ezarri zenetik, nabarmen murriztu ahal izan du udalak bilketa-zerbitzuak eragiten zion gastua (lehen defizita edo zorra urtean 60.000 eurokoa zen, eta orain 15.000 euro ingurukoa da). Defizitario izaten jarraitzen du, baina egin den esfortzua handia izan da, baloratu beharrekoa; eta, beraz, ez aldatzea erabaki da.

Komertzio edo negozio berriak irekitzeagatiko tasarik eta eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko tasarik ez da aplikatuko 2015ean ere; eta hilerriko tasa, postu, barraka eta saltokiei aplikatzen zaiena eta frontoiko argiena lehen bezala mantentzea aurreikusten da.

Atala bukatzeko, esan hemendik aurrera erabilera anitzeko gela irabazi asmoko jardueraren bat antolatzeko erabiliz gero, tasa bat ordaindu beharko dela. Bestalde, aldageletako dutxak txukuntzeko asmoa du udalak, eta horien erabiltzaileei ere tasa bat kobratzea pentsatu da.

MOTZEAN

5. Belarmendiri eskaera herri-bideetako ubideak garbitzeko: Belarmendik eta Tolomendik, Lanbideren laguntzarekin, 3 langile hartu dituzte baserri-bideetako ubideak edo kunetak garbitzeko. Langile horiek hartzeko gastuaren zati bat udalak ere ordaindu beharko du, oraindik zehazteko dagoen arren. Berastegin 7 egunetarako eskatzea pentsatu da.

6. Kutxako obra sozialak: Hitzarmena banku izaera hartu aurretik, Kutxabank eratu aurretik, egin zenez gero, obra sozialak egiteko aginduta zeukan dirua ematea erabaki du azkenean Kutxak. 2013 eta 2014ko zatiak dauzka ordaintzeko, eta bi urte horiei dagokiena lau urtetan, 2015etik 2018ra bitartean, ordainduko dio udalari. Urteko 18.750 euro izango dira.



7. Domeinu-aldaketa: Hainbat euskal erakundek, komunikabidek eta elkartek egin duten bezala, Berastegiko udalak ere [.eus](http://www.berastegi.com) domeinua eskatzea erabaki du. Laster, beraz, www.berastegi.com ordez, www.berastegi.eus izena hartuko du udalaren webguneak.

8. Kale-argien erdiak aldatu dira: Lehen fasean aurreikusi zen bezala, herriko kale-argi edo farolen erdiak aldatu dituzte dagoeneko. Gainerako erdiak datorren urtean, planaren bigarren fasean, aldatuko dira. Dirulaguntza bera eskatu da.



9. Ur Kontsortzioak egingo dituen inbertsioak: Hitzarmena sinatu zenean, urtean 70.000 euroko inbertsioak egiteko konpromisoa hartu zuen Kontsortzioak. Orain artean, kontadoreak aldatzea izan da egindako inbertsio bakarra, baina dagoeneko zehaztu dituzte hemendik aurrerako inbertsioak. Arazo eta matxura asko izaten dituzten ur horniduraren bi puntutan lan egingo dute: Pateo eta Gure Ametsa inguruan eta Elgorriaga eta Elutse bitartean.

10. Irisgarritasun planaren barruan pausoak: Udala jarri da harremanetan Lizarraga eta Zaraguetanekoekin. Printzipioz ez dute eragozpenik jarri kendu beharreko oztopoak kentzeko eta egin beharreko lanak egiteko. Bestalde, eskola-umeek ere egin dute lanketa etxetik eskolara iristeko dituzten oztopo arkitektonikoen inguruan. Ekarpene horiek ere kontuan hartuko ditu udalak.

11. Hezurtokiko lanak: Martxan da hezurtokiko obra. Aurki hasiko da udala beteta denbora gehien daramaten hilobiak husten, senitartekoei jakinarazpena bidali ondoren. Momentuz 18 hilobi, 6ko 3 bloke hustuko dira.

12. Baja bat lan-taldean: Jabier Saizar herri-langileak erretiroa hartu du, eta udalaren lan-taldea utzi du. Hainbeste urtetan herriaren alde egin duen lanagatik eskerrak eman beharrean gaude.

13. Erregearen argazkia pleno gelan jartzeko agindua: Horixe izan da Carlos Urkijo Espainiako gobernuaren ordezkariak udalari egin dion azken eskakizuna.

KULTURA

14. Kontentziosoa UEMAKo kide izateagatik: Momentuz Berastegiko udalerrak bakarrik jaso du Espainiako gobernu-ordezkaritzaren kontentziosoa. Carlos Urkijok bideratutako kontentziosoak 4.000 euroko gastua eragingo dio udalari, eta prozesuak ez du geratzeko itxurarik. UEMA bera arduratu izan da halako erasoei aurre egiteaz eta udalerriei zegozkien zigor ekonomikoak diruz hornitzeaz. Oraingoan, ordea, ez du ematen prozesua hain aise geldiarazterik izango duenik.

15. Salontzoen balantzea: Parte-hartzaileak izan ditugu festak aurten ere. Herritarrek herritarrekin antolatutak eta gauzatuak. Egunez antolatutako ekintzetan jende ugari ibili da; gauez, ordea, askoz gutxiago. Herri-afaria lehen aldiz catering-enpresa baten bidez antolatu da, eta eman zuena ikusita, balorazio ona egin du udal taldeak.

16. Kultur Astea 2014: Urriaren 24, 25, 26 eta 31n eta azaroaren 1ean eta 2an izango da aurtengo edizioa. Tartean, besteak beste, hitzaldiak, musika-

emanaldiak eta u m e e n t z a k o ekintzak izango dira. Azoka eguna azken egunean, azaroaren 2an, egingo da.

